

Eske pertsuen bilduma

II

V. SANTA AGEDAREN KANTUAK

Euskal Herrian ezagutuenak berriki kantari berriek eta oraiko olerkariak gure herriko politika eta kultura eztabaida batzuen azaltzeko estalgi bezala aldatuak. (Egun da Santi Mamiña)

Lehen liturgia garbiketak ez du Santa hori ukitu, bertze pagano saindu hainitzen gisa. Elizarentzat Palermako birjina bat da bizirik errea Catana-n 251.ean eta bularrak moztuta oñazetan hila Gabriel Aresti-k dion bezala

Ageda gure martiriari

Moztu zizkaten bularrak.

Benetan, egiaz nor da Agata? Paganoen garaian Sizilia guzian Jainkosa handi baten estatua paseatzen zuten; jainkosa horrek bi bularrak, bi ditiak ebakirik eskuetan zituen. Aur-ukaitearren idola zen, latinez *Bona dea* zen, Greziako hizkuntzan *Agathe*. Agathe hori oraindik Maltako islaren Santa da. Bertzalde Maltako islan aur-ukaitearen estatua handiak neolitikuak ediren dituzte. Jainkosa hori Agathe-n amona

LES CHANTS DE LA SAINTE AGATHE

Ce sont les chants les plus connus du Pays Basque, repris et modifiés par des chanteurs modernes ou des poètes contemporains ils permettent l'expression discrète de certains conflits politiques et culturels. (chanson Egun da SantiMamiña)

Cette Sainte a échappé à la première purge de Réforme liturgique, comme beaucoup de Saints d'origine paienne. Pour l'église c'est une vierge de Palerme brûlée vive à Catane en 251 et qui fut suppliciée les seins coupés, comme le dit Gabriel Aresti de Bilbao

A Agathe notre martyre

ils lui coupèrent les deux seins.

Qui est Agathe en réalité? A l'ère paienne dans toute la Sicile l'on promenait une immense statue de Déesse; cette déesse voit ses deux seins coupés dans les mains. C'était l'idole de la Fécondité, en latin c'était *Bona Dea* la bonne déesse, en grec Agathe. Cette Agathe est la patronne de l'île de Malte. D'autre part c'est dans cette île que l'on a découvert les statues néolithiques les plus grandes d'une déesse de la fé-

D. PEILLEN

edo Agathe bera da eta Paleolitiku garaiko Venus-en, itxura du bularrak dirlindan, ipurdi gizona.

(Courrier de l'Unesco)

Euskal Herrian ermita, eta kaperak Santa Agedari dedikatuak dira ez aibertze dakidanez, elizak.

Gainera Santa Agedaren bizitzaz berri jakiteko badaude eske kantuez kanpo Amilaitz giputzak egin pertsuak, «*Bertso berri eta kanta zar*» bilduman argitaratua (urterik lekurik gabe)

Santa Ageda Abestiak

Zorion etxe ontako danoi,
oles egitera gatoz:
aterik ate oitura zarra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ez eta ere oiñetakoz:
baina ezta ez sano gabiltza,
ta kanta nai degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa maitea gaur artu degu
gure bideko laguna;
aren laguntzaz bete gentzake
egun ontako jarluna.

Siziliako ugarte ederrak
emana degu lorea:
an jaio baizan gure Ageda,
zorioneko gaztea.
Txikitatikan gogoz artu zun
Jesuskristoren legea;
maitasun onek ekarri zion
biotzeko poz bete.

condité, ancêtre d'Agathe et dont les formes ressemblent aux Venus du paléolithique, seins pendants et stéatopogie (voir Courrier de l'Unesco).

Au Pays Basque ce sont surtout des chapelles qui sont dédiées à Sainte Agathe et moins des églises que je sache.

De plus nous disposons d'une vie de Sainte Agathe écrite par le guipuzcoan Amilaitz qui a parue dans un petit recueil sans indication de date et de localité; intitulé «Vers nouveaux et chants anciens I».

*Bonheur à tous ceux de la maison
nous venons vous saluer
de porte en porte la vieille coutume
voulant cette année renouveler.
Nous ne sommes pas très riches d'argents
ni même de chaussures:
mais notre gorge se porte bien
et nous avons bien envie de chanter.*

*C'est pour nous la veille de la Sainte
[Agathe
le jour du Pays Basque
pour réjouir en chantant toutes les maisons
nous l'avons choisie.
La chère Sainte nous avons pris
comme compagne de chemin;
nous pourrons avec son aide
accomplir notre propos.*

*(C'est) la belle île de Sicile
qui nous a donnée la fleur:
car c'est là bas que naquit notre Agathe
heureuse jeune fille.
Dès l'enfance elle accepta
la loi de Jésus Christ
cet amour lui apporta
le joie complète du coeur.*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

Edertasunez Jaunak apaindu
zuen Ageda gaztetan:
aren begiak izar bi ziran,
arpegi gozo aretan.
Gizon gaiztoen griña zitalak
esna zitzaken benetan;
laster itsutu zan Kintziano
Agedaren ederretan.

Agedak bere maite bakarra
jesus aukeratu zuan:
orregatikan beste maiterik
etzan arentzat munduan.
Kintzianoren eske guztiak
errez baztertu zituan;
baiña agintari gaizto arek
kristautzat salatu zuan.

Emakume gaizto baten mende,
sartu zuten giltzapean
Agedaren biotz garbi ura
zikin ote zezakean.
Alperrik baiña alegindu zan
andra lizuna lanean:
onen esanak etziran sartu
Agedaren biotzean.

Amorro biziz oiñutsik jarri
dute Ageda zintzoa,
txingar gorrien gaiñean gero
ibilarazi gaixoa;
ondoren bular bat ebakita,
uzten dute urratua;
baiña Jainkoak biurtu zion
gau artan bular mindua.

Alperrik gizon gaiztoak zuten
oiñazez erdi-illik utzi:
Jesu-Kristoren maitasun artan
etzuan iñola etsi
Otoi gozotan gogoa ixuriz
mundu ontatik igesi,
zeruetako zori ederra
betiko zun irabazi.

*De beauté, le Seigneur avait orné
Agathe dès sa jeunesse:
ces yeux étaient deux étoiles,
dans ce doux visage.
Les désirs sournois des méchants hommes
elles pouvaient vraiment les réveiller
vite Quintien s'aveugla
de la beauté d'Agathe.*

*Pour seul amour Agathe
avait choisi Jésus:
aussi d'autre amour
n'existait pour elle au monde.
Toutes les demandes de Quintien
elle les écarta facilement;
mais ce gouverneur méchant
la dénonça comme chrétienne.*

*Sous la coupe d'une femme légère
ils la mirent en prison,
ce coeur pur d'Agathe
pour qu'elle puisse le salir
Inutilement elle s'efforça
à cette tâche la femme impure:
ce qu'elle dit n'entra pas
dans le coeur d'Agathe.*

*Dans une rage folle ils l'ont mise pieds nus
la sage Agathe
sur des braises brûlantes et
faite marcher la pauvre;
ensuite lui coupant un sein
ils la laissent, déchirée;
mais Dieu lui rendit
cette nuit-là son sein blessé.*

*En vain les hommes cruels l'avaient,
succombant sous la torture, abandonnée
en cette amour pour Jésus Christ
elle ne désespéra jamais.
Dans de douces prières écoutant sa pen-
[sée,
fuyant ce monde,
la félicité des cieus
elle gagna pour toujours.*

D. PEILLEN

SANTA YAGEDA KANTAK

Cancionero Popular Vasco XI. R. M. Azkue (Azk)

Iturriak: EGAN - I. 56 (Eg); Euskaldunak, Orixe 1950 (Or); Euskal kantak, Bilbao 1960 (E. K.) ATEA JO.

1

Dios te salbe, ongi etorri
gabon Jainkoak diela:
legearekin kunpli dezagun
gaur Sant'Ageda bezpera.

(Eg)

*Dios te salve, bienvenu
Que Dieu vous donne bonne nuit:
Avec la loi accomplissons
Ce soir la veille de Sainte Agathe.*

(Guipuzcoa)

2

Oles ta oles, etxeokak
lotxo gozoan al zaute?
Gaur Sant'Ageda bezpera da ta
arren esnatu zaitzte.

(Eg)

*Salut et salut
dormez vous d'un doux sommeil
Ce soir est la veille de Sainte Agathe
réveillez vous donc.*

(Guipuzcoa)

3

Sentitzen zaitut sentitzen
ari zarala jeikitzen;
zure gerriko giltza soinua
emendixe dut aditzen.

(Or)

*Je le sens(oui) je le sens
que vous êtes en train de vous lever;
le son des clefs de votre ceinture
d'ici je l'entends (Navarre).*

(Haute Navarre)

4

Atean jotzen ez dugu lanik
dena den dago zabala;
etxe hontako jende noblea
Jainkoak bedeinka dezala.

(Or)

*A frapper à la porte nous n'avons pas de
[peine
elle est complètement ouverte;
les gens nobles de cette maison
que Dieu les bénisse.*

(Haute Navarre)

5

Bedeinkatua izan dedilla
Etxe hontako jentea (sic)
Pobre ta umil dabilzantentzat
badute borondatea.

(Azkue, Zumaia)

*Que soient bénies
les personnes de cette maison
pour ceux qui vont pauvre et humble
ils ont de la bonne volonté.*

(Guipuzcoa)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

SANTA YAGEDAREN AIPAMENA

6

Or goien goien ermita
(edo or goian dago ermita)
Santa Yageda deritza:
Ango Serore mutilak gera
limosna billan gabiltza.

(Azkue, Bakaikoa)

*Là haut là haut l'hermitage
(Là haut est l'hermitage)
qui s'appelle Sainte Agathe:
Nous sommes les garçons de cette Soeur
qui marchons en quête d'aumône;*

(Haute Navarre)

7

Allegatu naiz atean
Aingeruekin batean
Santa(y) Agedak bialdu gaitu
eskera garuko gabea.

(Eg)

*Je suis arrivé à la porte
en même temps que(avec) les anges
Sainte Agathe nous a envoyé
à la quête cette nuit.*

(Guipuzcoa)

8

Ole ta ole etxekotxuak
jotzen ditut gaur atearik
jotzen ditut nik atearik eta
kontsola bediz jentearik.

(Azkue, Getaria)

*Salut et salut, la maisonnée
je frappe ce soir (aux) portes
je frappe ce soir(aux) portes et
que le monde se console.*

(Guipuzcoa)

9

Santa Agata andere
Aurten bezala gero ere
Santa Agatak egortzen gaitu
badukezun deus ere.

(Azkue, Amikuze)

*Sainte Agathe, Madame
comme cette année de même après
Sainte Agathe nous envoie
si vous avez quelque chose.*

(Basse Navarre)

Baimenak

Autorisations

10

Atzo goizean Panplonan giñan,
oñez gerade etorri:
Obispoaren baimena ere
gerekin degu ekarri.

(Eg)

*Hier matin nous étions à Pampelune
nous sommes venus à pied
L'autorisation de l'évêque également
nous l'avons apportée avec nous.*

(Guipuzcoa)

D. PEILLEN

11

Alkate jaunaz egondu gera
atzoko arratsaldean,
libertatea gerekin degu
ibillizteko pakean.

(E. K.)

*Nous sommes restés avec le maire
hier après midi,
nous avons avec nous la liberté
de déambuler en paix.*

(Guipuzcoa)

12

Libertatea eskatzen diot
(Bere baimena) (Getaria)
etxeko printzipalari
etxeko nagusiari (Getaria)
Santa(y) Agedaren alabantzak
kantatutzera noa ni.

(Olazagutia)

*Je demande la liberté (Haute Navarre)
je demande l'autorisation (Guipuzcoa)
au principal de la maison (H. N.)
au maître de maison (G.)
les louanges de Sainte Agathe
je viens chanter.*

AGURRAK ETA LAUSENGUAK

(Saluts et louanges)

Agurrak

Saluts

13

Santa martiri maitea
dago errukiz betea:
berak iritxi degizkigula
osasuna ta pakea.

(Eg)

Etxekojaunari

*La Chère(et) sainte martyre
est pleine de compassion
qu'elle nous gagne
la santé et la paix.*

(Guipuzcoa)

Au maître de maison

14

Etxe ondoan eder duzute
Intxaurra lerdin lerdina;
nagusi jauna koplá dezagun
etxeko denen aurrera.

(Or)

*Près de la maison est beau
le svelte,(très) svelte(le)noyer;
faisons des couplets à Monsieur le Patron
avant tous ceux de la maison.*

(Haute Navarre)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

15

Nagusi jauna aurrena
erreberenzi lurrera:
lotsaz gerala etorri gera
jauna beroren aurrera.

(Eg)

*Monsieur le Patron d'abord
révérence jusqu'à terre:
nous sommes venus (que) nous avons
[honte
de nous présenter devant vous Monsieur.*
(Guipuzcoa)

16

Or goien izarra,
errekaldean lizarra:
etxe hontako nagusi jaunak
urre gorritzko bizarra.

(Gaintza, Azkue)

*Là haut(très) haut l'étoile,
près du ruisseau le frêne:
le maître de cette maison
(a) la barbe en or rouge.*

(Guipuzcoa)

17

Urre gorritzko bizarra eta
diamantezko espalda:
ezkutu lodiz egina dauka
elizarako galtzara.

(Eg)

*La barbe en or rouge et
le dos en diamant
de gros écu est fait pour lui
le chemin de l'église.*

18

Urre gorritzko bizarra eta
urre zurizko bizkarra:
berori bezin gizon presturik
erri onetan ez al da.

(Or)

*La barbe en or rouge et
et le dos en or blanc:
d'homme aussi plein d'allant
il n'y a probablement pas.*

(Haute Navarre)

19

Eder soruan goldia,
soñian kapa moria:
etxe hontako nagusi jauna
ondo gizontxo noblia.

(Eg)

*Beau dans le champ la charrue,
sur le dos la cape violette:
le maître de cette maison
est un brave homme bien noble.*

(Guipuzcoa)

20

Usua dua otara
Nere begiak lotara:
oraintxe nua, nagusi jauna
berorren koplaetara.

(E. K.)

*La palombe va sur l'ajonc
mes yeux à dormir:
maintenant je vais, Monsieur le patron
vous faire des couplets.*

(Guipuzcoa)

D. PEILLEN

21

Etxe ontako nagusi jauna
gauza askoren jabea
limosna ere emango digu
iñortxok baiño obea.

(Eg)

Etxekanderiari

*Le Maître patron de cette maison
propriétaire de toute chose
il nous donnera aussi l'aumône
meilleure que n'importe qui.*

(Guipuzcoa)

A la maîtresse de maison

22

Eder intxaurren kordena
alaxe dezu ordena:
etxe(oy)andria; koplaturteko
nagusiaren urrena.

(E. K.)

*Belle la coque des noix
ainsi est l'ordre: de faire
des couplets à la maîtresse
après le maître de maison.*

(Guipuzcoa)

23

Ora goien goien iturri
ura pil-pil etorri:
etxe ontako etxeoandreak
Ama Birjiña dirudi.

*Là haut, très haut (la) fontaine
l'eau (y) vient en frémissant:
la maîtresse de cette maison
ressemble à la Mère Vierge.*

24

Or goein goien errota,
iriña leun igota:
etxe ontako etxeoandrea
Birjiñ amaren debota.

*Là haut, très haut le moulin;
la farine fine moulue:
la maîtresse de maison
dévote de la Vierge mère.*

25

Etxekoandre zabala
toki oneko alaba:
bidean inportatu gaituzte
limosnaria zerala.

(Eg)

*Maitresse de maison aisée
fille de bonne maison:
en chemin l'on nous a informé
que vous êtes charitable.*

(Guipuzcoa)

26

Etxekandere zabala
toki oneko alaba:
bidean nator ondo jakiñik
eskuzabala zarala.

(Or)

*Maitresse de maison aisée
fille de bonne maison:
j'arrive par le chemin sachant bien
que vous êtes généreuse.*

(Haute Navarre)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

27

Etxekoandria orra ona
Zere gauzaren doi ona
Pazko goizian jantziko ituzu
zere soñean amar gona.

(E. K.)

*Maitresse de maison voici
ce qui vous convient.
vous vêtirez le matin de Pâques
sur vous dix robes (?)*

(Guipuzcoa)

28

Txuri nabarra azpiko,
gorri ederra gañeko;
andria zure parerik ez da
plaza bat onratutzeko.

(E. K.)

*La blanche et bigarrée par dessous
la belle rouge par dessus;
Madame il n' (y) a pas votre pareil
pour honorer une assemblée sur la place.*

(Guipuzcoa)

29

An goien goien elorri
ondoan jota erori: (sic)
etxe ontako etxeko andreak
Ama birjiña dirudi.

(Or)

*Là haut, très haut l'aubépine
tombe frappée à la base: (sic)
la maîtresse de cette maison
ressemble à la mère Vierge.*

(Haute Navarre)

30

Naparroan da Bardena
Kaparrosuan urrena:
etxeko andrea kopla dezagun
nagusiaren urrena.

(Or)

*Bardena est en Navarre
tout près Caparrosos:
faisons(des) couplets à la maîtresse
après le patron de la maison.*

(Haute Navarre)

31

Urresillan da bera yarritzen
urrespiluan miratzen
txokolatea artu(y)artean
ezta(y) andikan yeikitzen.

(Azkue, Alsasua)

*Elle s'assoit sur une chaise en or
(se)regarde dans un miroir en or
le temps de prendre le chocolat
elle ne se lève pas de là.*

(Haute Navarre)

32

Ezkilak errepikatzen
jendeak zer den galdetzen,
etxe ontako etxeko andrea
kotxean da elizaratzen.

(Azkue, Alsasua)

Damak eta zaldunak

*Les cloches sonnent
le monde demande ce que c'est
la maîtresse de cette maison
se rend à l'église en voiture.*

(Haute Navarre)

Dames et chevaliers

D. PEILLEN

33

Trebola baratzekoa,
larrosa maiatzekoa;
zuri begirab ementxe gaude,
damatxo biotzekoa.

(Azkue, Zumaia)

*Le trèfle du jardin
la rose de mai:
nous sommes là à vous regarder
petite dame de (notre) coeur.*

(Guipuzcoa)

34

Zapata txuri paperez
euriak jo ta ezerez:
errian damak badira baina
zure parekorik ez.

(Azkue, Zumaia)

*Soulier blanc en papier
touché par la pluie et rien:
dans le pays il y'a des dames mais
votre pareil non.*

(Guipuzcoa)

35

Lezok urre du erria,
Pasaiak Errenteria:
erostunean pasa diteke
damea zure gerria.

(Azkue, Zumaia)

*Lezo est près de (son) village
Pasajes (près) de Renteria:
on pourrait passer dans un anneau
dame votre taille.*

(Guipuzcoa)

36

Erostunean gerria,
mardula bularteria,
neure ustean ezta faltako
zuretzat merkataria.

(Zumaia)

*Dans l'anneau la taille,
potelée la poitrine,
à mon avis il ne manquera pas
pour vous de soupirants.*

(Guipuzcoa)

Orrako or goian begira otea
Dena lorez betea,
itxe ontako itxeko andreak
kofrean dauka dotea.

(Oiarzun)

*Regardez là haut l'ajonc
tout plein de fleurs,
la maîtresse de cette maison
à la dote dans le coffre.*

(Guipuzcoa)

37

Arantza beltza ostrua txiki,
puntara zaiku loratu:
orain emendik bear genduke
dama gazte bat koplatu.

(Eg)

zaldun gazte bat koplatu.

(E. K.)

*L'épine noire la feuille petite,
nous a fleuri au sommet:
maintenant d'ici nous devrions avoir
fait des couplets pour une jeune dame
fait des couplets pour un jeune chevalier.*

(Guipuzcoa)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

38

Damatxu gazte konpondua
ori kolore gorria:
zure matralla iruritzen zat
krabeliñaren orria.

(E. K.)

*Jeune et petite dame bien mise
quelle couleur rouge:
votre joue ressemble
à un pétale d'oeillet.*

(Biscaye)

39

Krabeliñaren orriarekin
larrosa mayatzekua;
zeure begira ementxe nago
damatxo biotzekua.

(E. K.)

*Avec les pétales de l'oeillet
la rose de mai:
je suis ici à vous regarder
dame de (mon) coeur.*

(Guipuzcoa)

Etxekoalabari

A la fille de la maison

41

Or goien goien otia
ondotik jo ta botia:
etxe ontako alabatxoak
bost milla duro dotia.

(Eg)

*Là haut, très haut l'ajonc
frappé au pied et abattu:
la fillette de cette maison
la dotte de cinq mille douros.*

(Guipuzcoa)

42

Eraztuntxoia letonez
begiak urre kolorez:
etxe ontako alabaxue
edozeinentzat egon ez.

(Eg)

*Le petit anneau de laiton
les yeux couleur d'or:
la petite fille de cette maison
ne restera pas pour n'importe qui.*

(Guipuzcoa)

43

Etxeko alaba andretakoa
norbaitek bazaitu maite;
datorren urtez garai ontako
etxeko andretu zaita.

(Or)

*Fille de la maison à marier
si quelqu'un vous aime,
l'année prochaine pour cette saison
devenez maîtresse de maison.*

(Haute Navarre)

44

Errotapien arrie
aren ganien txorie
eraztun baten artu leiteke,
Maritxu zure garrie.

(Eg)

*Sous le moulin la pierre
sur la pierre l'oiseau
en un anneau on pourrait prendre,
Marianne votre taille.*

(Biscaye)

D. PEILLEN

45

Askan eder da garia
aren gañean txoria:
eraztun batek hartu lezake
neskatxa zure gerria.

(Or)

*Daus l'aufe est baeule
froment (et) au dessus l'oiseau:
un anneau pourrait preudre
fillette votretaille.*

(Haute Navarre)

46

Usoak egal gorrizu
mokoaldea lumazu:
orren aingeru txiki polita
nondik agertu zara zu.

(Or)

*La palombe à l'aile rougeâtre
(à) la base du bec plumeux;
(ô vous) joli petit ange
d'où êtes vous apparue?*

(Haute Navarre)

47

Zure ortuan madari,
adarrak ditu amabi:
etxe ontako alabatuak
babalorea dirudi.

(E. K.)

*Dans votre jardin (le) poirier,
a douze branches:
la fillette de cette maison
ressemble à une fleur de fève.*

(Biscaye)

48

Eder basuan espala
nik ezin esan bestela:
zure besuan lo egingo nuke
Paradisuan bezela.

(E. K.)

*Beau dans le bois (forêt) le grand copeau
je ne peux vous le dire autrement:
dans vos bras je dormirais
comme dans le Paradis.*

(Guipuzcoa)

Etxeko semeeri.

49

Etxeko seme zalduna,
Jesukristoren kutuna:
orla bakarrik gaizki zaude ta
bear zenduke laguna.

(Eg)

*Fils de (la) maison chevalier,
préféré de Jésus Christ:
ainsi seul vous êtes mal et
vous devriez avoir le compagnon.*

(Guipuzcoa)

50

Etxe ontako maiorazkuak,
noiz ote dakar andrea?
guri etzaigu ajolik baiña
berarentzako kaltea.

(Eg)

*L'héritier de cette maison,
quand donc apporte t-il une épouse?
à nous (celà) nous est indifférent mais
pour lui le dommage.*

(Guipuzcoa)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

51

Orra or goyan iturri
ura txorrotik erori;
etxe onetako zaldun gaztiak
amalau urre txintzarri.

(E. K.)

*Voilà là haut fontaine
l'eau du jet tombe:
le chevalier de cette maison
quatorze clochettes d'or.*

(Guipuzcoa)

52

Amalau urre txintzarriekin
zazpi damaren eguzki,
ayek guziak ala izanik
geyago ditu merezi.

(E. K.)

*Avec quatorze clochettes
soleil de sept dames, (de plus d'une dame)
ayant ainsi tout celà
mérite davantage.*

(Guipuzcoa)

53

Eder elizan aldare,
arri landuzko pillare:
Birjiñ amaren seme alabak
etxe onetan dirade.

(Eg)

*Beau dans l'église l'autel,
(les) piliers de pierre taillée:
les fils (et) filles de la Mère Vierge
sont dans cette maison.*

(Guipuzcoa)

Or goian dago urrutietan
Goien goiengo leioetan:
zazpi zezenek yoka dezala
Anjelesen ezteietan.

(Alsasua)

*Là haut dans le lointain
il est aux plus hautes fenêtres:
que sept taureaux combattent
aux noces d'Angel.*

(Haute Navarre)

54

Eder elizan liburu
usuak aren inguru:
etxe ontako txiki-aundiak
Paradisuan aingeru.

(Eg)

*Beau à l'église (le) livre
les palombes autour de lui:
les petits(et) grands de cette maison
anges au Paradis.*

(Guipuzcoa)

ESKEA

55

Astera noa, astera noa...
lukainka biren tratuan:
gutxiagorik ez degu artzen
asi ezkerok kantuan.

(Eg)

*Je vais commencer, je vais commencer...
en échange de deux saucisses:
nous ne recevons pas moins
une fois commencé à chanter.*

(Guipuzcoa)

D. PEILLEN

56

Errekaldean arria
aren gañean txoria:
etxe ontatik espero degu
erreal biko txuria.

(Eg)

*Près du ruisseau la pierre
sur elle l'oiseau:
de cette maison nous attendons
le blanc de deux réaux.*

(Guipuzcoa)

57

Okaran txiki gorri betie
aurten da zure urtie:
errealxu bi emon ezkeru
urte guziko bakie.

(Eg)

*Petite prune rouge bien pleine
cette année est votre année:
après avoir donné deux réaux
la paix pour toute l'année.*

(Biscaye)

58

Ateak dauka zulua
sartuko nuke besua:
emendikantxe ikusitzen det
lukainka mutur gozua.

(Eg)

*La porte a le trou
j' (y) rentrerais le bras:
d'ici même je vois
la saucisse au doux museau.*

(Guipuzcoa)

59

Solomuaren luzie
aren koïpien gozue:
zatirik kentzen ibilli barik
ekarri izu gutzie.

(Eg)

*La longueur de la poitrine
la douceur de sa graisse:
sans aller enlever de morceau
apportez nous le tout.*

(Biscaye)

60

Etxe ontako Mariye,
ointx'esangotzut egie:
ainbat lasterren topau egizu
ollo pintoen abiye.

(Eg)

*Marie de cette maison
maintenant je vous dirai la vérité:
le plutôt possible trouvez
le nid de la poule bigarrée.*

(Guipuzcoa)

61

Kakotik ziztor, askatik urdai,
kabitikan arroltzea:
bizi-bizirik zeruan zegok
etxe ontako jendea.

(Eg)

*Du crochet saucisse, du pot de grès la
[cochonaille
du nid l'oeuf:
vivant (comme) au ciel se trouve
le monde de dette maison.*

(Guipuzcoa)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

62

Emango bauzu emazu,
bestela ezetz esazu:
ate ondoan otzaz iltzera
amak ez gaitu bialdu.

(Eg)

*Si vous donnerez, donnez,
sinon dites nous que non:
près de la porte à mourir de froid
(notre) mère ne nous a pas envoyé.*

(Guipuzcoa)

63

Etxe onetako etxeko andrea
(edo Santa Yageda, Santa Yageda)
giltza (y) aundien yabea
giltza(y) aundiak artu(y) ezkerro
eguzu limosnea.

(Azkue, Alsasua)

*La maîtresse de cette maison
ou Sainte Agathe, Sainte Agathe
possédant les grandes clefs
après avoir pris les grandes clefs
faites nous l'aumône.*

(Haute Navarre)

64

Limosenea ona da baya
borondatea ohea:
Jaun zerukoak paga dezala berorren
berorren borondatea.

(Azkue, Alsasua)

*L'aumône est bonne mais
la bonne volonté(est) meilleure:
Que le Seigneur du ciel récompense
votre bonne volonté.*

(Haute Navarre)

65

Idia edo idisko, urdai puzke
Urdai puzkea lodisko
urdai puzkarik ezpaldinbada
iru lukainka «lo mismo».

(Azkue, Alsasua)

*Le Boeuf ou bouvillon, le morceau de porc
le morceau de porc un peu gros
si vous n'avez pas de morceaux de porc
trois saucisses «la même chose».*

(Haute Navarre)

66

Armariuna sagua, (edo Oramaiean sagua)
ari begira katua:
etxe ontako okelarekin
ez da beteko zakua.

(Eg)

*La souris dans l'armoire (ou dans le pé-
[trin])
le chat la regarde:
avec la viande de cette maison
le sac ne se remplira pas.*

(Guipuzcoa)

D. PEILLEN

ESKERRAK (esker onak) Remerciements (reconnaissance)

67

Eder ezpata magiarekin,
magia prontalarekin:
etxeoandrea etorri zaigu
eskuan limosnarekin.

(Eg)

*Belle l'épée avec le fourreau
le fourreau avec le casque (la salade):
la maîtresse de maison nous est venu
avec une aumône à la main.*

(Guipuzcoa)

ESKER GAIZTOA

68

Ora goien goien lañoa,
errekaldean otsoa; (edo aren azpian otsoa)
arkakusoak itoko al dik
etxe ontako atsoa.

(Eg)

*Là haut très haut le brouillard
près du ruisseau le loup (ou en dessous le
[loup]
les puces etoufferons probablement
la vieille de cette maison.*

(Guipuzcoa)

69

Atso zar oni zitzi dario
Okotz eta mokorretik
odol-ustu bat komeni zaio
gibelaldeko zainetik.

(Or)

*A cette vieille les chaires lui coulent
du menton et des hanches
une saignée lui conviendrait
par la veine du derrière.*

(Haute Navarre)

70

Limosna ere artu degu ta orain
ta orain abia gaitian
adiosikan ez degu eta
agur, ikusi artian.

(Eg)

*Nous avons reçu une aumône également
et maintenant mettons nous en chemin
nous n'avons pas d'Adieu et
salut, au revoir.*

(Guipuzcoa)

71

Baratzean belar on
gauak eman tu lau oron;
gu bagoatza emendik eta
Yainkoak diziela gabon.

(Azkue, Garaio)

*Dans le jardin bonne herbe
la nuit a donné quatre heures;
nous partons d'ici et
que Dieu vous donne bonne nuit.*

(Haute Navarre)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

72

Goazen goazen hemendik,
hemen ez tuk xingarrik,
etxe huntako gazitegian
saguak humeak egin tik.

(Azkue, Amikuze)

*Allons allons nous(en) d'ici
ici tu n'as pas de lard
dans le saloir de cette maison
la souris a fait ses petits.*

(Basse Navarre)

73

Gure baratzean berar ona
ark botatzen du usain ona:

(Azkue, Urdiain)

*Dans le jardin bonne herbe
elle jette le parfum*

(Haute Navarre)

.....

74

Goian goian irargia
erdi erdian krabelina:

(Azkue, Urdiain)

*Là haut très haut la lune
au beau milieu l'oeillet*

(Haute Navarre)

.....

75

Utzan utzan ori,
orrek ezten dirurik,
ortxe zeraman boltsa aundi bat
zorri zuriz beterik.

(Sunbilla, Azkue)

*Laisse laisse celui là
celui là n'a pas d'argent,
là il porte une grande bourse
pleine de poux blancs.*

(Haute Navarre)

SANTA AGEDA-KO KANTUA

(Eskual kantuak, Hernani argitaldaria, Hendala)

ALKATE JAUNARI

Alkate jauna legean gatoz
baimen eskean atera,
kanta zarrak galdu ez ditezen
lengo oitura piztera
Guraso zarren legean pozik
goaz danok kantatzera:
Santa Agedak ekarri gaitu
berorren etxe aurrera.

A MONSIEUR L'ALCALDE

*Monsieur l'alcalde nous venons légalement
demander l'autorisation à votre porte
pour que les vieux chants ne se perdent
pour faire renaître le ancienne coutume.
A la façon des anciens gaïment
nous allons tous chanter:
Sainte Agathe nous a conduit
devant votre maison (la maison de votre
[excellence])*

D. PEILLEN

BIKARIO JAUNARI

Apaizburu jaunaren atean
jo nai degu gaur aurrean,
Jaungokoaren ordezkoiari
gure agurrik onena.
Zeruko jaunak argitu beza
berorren jardun zuzena,
zeru goietan izan dezagun
guztio gure azkena.

ETXEKO JAUNARI

Mendi tontorrek elurrez zuri,
atai-aldean laiotza
etxe ontako nagusi jaunak
urrezkoa du biotza
Santa Agedak kendu digu gaur
eskean asteko lotsa:
dirurik ezpada, berdín zaigu
gizendutako bildotsa.

ETXEKOANDREARI

Zelai erdian loreak argi,
larros krabelin da lili:
etxe ontako etxeakoandreak
Ama Birjiña dirudi.
Etxe ontako urdaiazpiko
asko kakotik zintzili
ta lukainka gorriak ugari
poltsa betetzeko guri.

SENAR EMAZTE GAZTEI

Itzal berria zabaldu digu
atai aurreko intxaurreak:
ahe berriak sendotu ditu
etxe sakape zarrak.
Senar emazte gazteak neurtu
dituzte beren indarrak:
arto ta gariz beteko dira
aurten mandio bazterrak.

ETXEKO ALABARI

Mutil gazteak atean gera
Nun da etxe larrosa?

A MONSIEUR LE VICAIRE

*A la porte de monsieur le prêtre
nous voulons frapper tout d'abord,
Au représentant de Dieu
Nos meilleures salutations.
Que le Seigneur du Ciel éclaire
Les justes propos de votre excellence
Pour qu'au ciel nous ayons
Tous notre fin dernière.*

AU MAÎTRE DE MAISON

*Les sommets des monts, blancs de neige,
près de la porte la serpe
le maître de cette maison
a le coeur en or.
Ce soir Sainte Agathe nous a ôté
la honte de commencer à quêter
s'il n'y a pas d'argent, il nous est égal
l'agneau engraisé.*

A LA MAÎTRESSE DE MAISON

*Au milieu du pré brillent les fleurs
rose, oeillets et lis:
la maîtresse de cette maison
ressemble à la Sainte Vierge.
Les jambons de cette maison
pendent, nombreux, des crochets
et les rouges saucisses abondent
pour remplir nos sacs.*

AU JEUNE COUPLE

*L'ombre nouvelle nous a déployé
le noyer près de la porte:
une nouvelle poutre a consolidé
les vieilles charpentes de la maison
Les jeunes mariet femme ont
mesuré leurs forces:
de froment et maïs se rempliront
cette année les recoins de grange.*

A L'HÉRITIÈRE

*Jeunes garçons nous sommes à la porte
où se trouve la rose de la maison?*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

Atera bedi azkar leihora
begiak ditzagun goza.
Eguzki berak ikusi nai du
orren arpegi panpoxa:
nere emazte izan nai balu
betea nuke nik poza.

Mutil taldea ementxe gaude
danok gazteak eta gai:
mundu guztia igaro degu,
itsas, legor, mendi zelai;
neskatx ederrak utzi ditugu
negar-malkotan gure zai:
baña guk neska danen artean,
emengotxe alaba nai.

ETXEKO SEMEARI

Tantai luzeak gerria zuzen
darama zeru aldera:
etxe ontako seme jatorrak
badu maitale aukera:
alaba gazte asko dabilta
zugatik biotz minbera;
mutilzartuta bizi izateko
jaunak egiña etzera.

ETXEKO AURREI

Gau ederrean illargi inguru,
sukalde ortan amaren albo,
izarrak zeru urdiñean,
aur ederrak jolasean
zerua ustu zaigu aingeruz,
oiek emen jaiotzean;
zeruko jaunak gordeko ditu
gizon egin bitartean.

DENDETAN

Eskean gatoz, baña ez gera
ez ijito ta ez pralle:
Santa agedak atera gaitu
kalera kantatzaile
Denda onetan kaxoitxo asko
danak giltz eta zerralle:
estraperloko kajoitik bota
peseta pare bat mille.

*Qu'elle se montre vite à la fenêtre
pour nous réjouir les yeux.
Le soleil même veut voir
son joli visage
si elle voulait être ma femme
ma joie serait comble.*

*Nous voici un groupe de jeunes gens
tous jeunes et pleins d'allant
nous avons parcouru le monde entier,
mer, terre, monts et plaines;
nous avons laissé de belles filles
en pleurs dans notre attente:
mais nous parmi toutes les filles
nous voulons l'héritière d'ici-même.*

AU FILS DE LA MAISON

*La longue pousse à sa taille droite
il la monte vers le ciel:
le fils racé de cette maison
à le choix des amoureuses:
beaucoup de jeunes filles vont
à cause de vous le coeur touché (sensible)
pour vivre en vieux garçon
le seigneur ne vous a point fait.*

AUX ENFANTS DE LA MAISON

*Dans la belle nuit autour de la lune
dans ce foyer près de leur mère,
les étoiles dans le ciel bleu,
les enfants qui jouent
le ciel s'est vidé d'anges
quand ceux-là sont nés;
que le seigneur du ciel les garde
le temps qu'ils deviennent grands.*

DANS LES BOUTIQUES

*Nous venons quêtant, mais nous ne som-
[mes
ni gitans, ni moines:
Sainte Agathe nous a sorti
à la rue pour chanter
Dans cette boutique nombreuses caisses
toutes en clefs et en serrures
de la caisse noire donnez
une paire de billets de mille pesetas.*

D. PEILLEN

TABERNETAN

1

Aspaldi ontan ura garesti
dabil esne ta ardotan
mats gutxi izan arren, ardorik
ez da falta tabernetan.
Jesusesk ura ardotu bazun
Kanaango eztaietan
orain ikasle azkarrak sortu
zaizkio ardangeletan.

2

Ura gustatzen zaigu eskuak
ta arpegia garbitzeko
baña napar beltza bear degu
eztarria busritzeko;
txanpaña ere edango genuke
norbait balitz emateko,
pattarra ez da gaizki etortzen
bizkarreko otza kentzeko.

PERNANDO AMEZKETARRENA

1

Amezketako Pernando zanak
jo zuen bein il kanpaia
erri guzian zabaldurikan
nor il zan galdetu naia.
Erri osoa batu zanean,
Pernandok kiñu eginda
«erri onetan esaten die
karidadea gaur il da».

2

Euskalerriko erri onetan
Pernandok ez du lanikan,
karidadea bizi da emen
kale ta baserrietan.
Gaurkoagatik beraz, Pernando,
zaude zure ezurretan,
zure zirien bearrik ez da
erri ontako etxetan.

DANS LES AUBERGES

*Depuis longtemps l'eau coute cher
parmi le lait et les vins
bien qu'il y ait peu de raisin, le vin
ne manque pas dans les auberges.
Jesus transforma l'eau en vin
aux noces de Canaa
maintenant il lui est né de solides disciples
dans les auberges.*

*L'eau nous plait pour
laver mains et visage
mais il nous faut le vin noir de Navarre
pour mouiller nos gosiers:
nous boirions bien le champagne
s'il y avait quelqu'un pour l'offrir,
l'eau de vie ne va pas mal
pour ôter le froid du dos.*

CELLE FERNANDO D'AMEZKETA

*Feu Fernando d'Amezqueta
sonna un jour le glas
répandant dans tout le pays
le désir de demander qui était mort?
Quand tout le pays fut rassemble
Fernando ayant fait un signe
«dans ce pays —déclara t-il—
ce jour la charité est morte.*

*Dans cette commune du Pays Basque
Fernando n'a pas de travail
la charité vit ici
dans le bourg et les campagnes
Pour aujourd'hui donc Fernando
restez dans vos os,
de vos saillies il n'y a pas besoin
dans les maisons de ce pays.*

ORAIN ETA LEHENAGO

Eske bertsuek ohiko koplak begiratzzen badituzte ere, oraiko pertsoak tar-tekatzen zaitze, gertaera bat edo jende bat aipatzeko. Edurne Egileor bizkaitar adiskide batek eman dizkit aitona zenak, Kepa Enbeita euskal olerkari famatuak urtero eginikakoetarik, Edurnen amak igorriak, Zorrontzatik.

ACTUALITEE ET TRADITION

Les vers de quête s'ils maintiennent les couplets traditionnels y mêlent des vers nouveaux, des vers d'actualité, des allusions à un personnage connu. L'exemple de vers nouveaux m'a été communiqué par Edurne Eguileor, une amie biscaïenne dont le grand père, le réputé poète basque Kepa Enbeita en composait tous les ans, la transcription est de la mère d'Edurne de la ville de Zor-noza.

**AGATE DEUNA. ENBEITATAR KEPAREN IZKIA
SAINTE AGATHE, PAROLES DE KEPA ENBEITA**

1

Gauhon etxeko, nausi ta txiki
Zahar eta gazte batera,
Alkate jaun(en)en baimenaz gatoz
Zeuek atsegindutzero
Lenauko zaharren antzera
Bagatoz zeuen etxera
Deun Agateren jasoeria
Euskeraz abestutzero.

*Bonne nuit, petits et grands de la maison
Jeunes et vieux en même temps;
Nous venons munis de l'autorisation de*
[l'alcalde

*Vous faire plaisir.
A la façon des anciens
Nous venons dans vos maisons
Les aventures de Sainte Agathe
pour chanter en basque.*

2

Hil arteraño Jaungoiko zale
garbi garbia izan zan;
Orbandu gura ez ebalako
Bularrak ebai eutsozan
Ziñopa eginda hil zan.
Orain dago zeruetan
Beren antzeko garbizalia
Geu bereizan gaitezan.

*Fidèle à Dieu jusqu'à la mort
Elle resta très pure;
Pour ne pas avoir voulu se souiller
On lui coupa les seins
Elle mourut martyre.
Maintenant elle est au ciel
A sa façon attachés à la pureté
nous aussi soyons-le.*

3

Gaur baserriko etxetxu (sic) zuri
Etarte zabaldunetan
Deun Agateren sari ederrak

Ce soir dans les blanches maisonnettes de
[la campagne
à l'accueil généreux

D. PEILLEN

Emon deuskuez danetan
Hau ez diñogu olgetan
Ezpabe zihur benetan
Ez dogu barriz gitxiagoren
Usterik etxe onetan.

*les belles récompenses de la Sainte Agathe
on nous les a données partout.
Nous ne disons pas celà pour(nous) amu-*

[ser

*Mais pour de vrai sûrement
Nous n'en espérons pas moins
Encore dans cette maison.*

4

Jaun zerukoak onetsi bedi (beza?)
Etxe hau beti betiko,
Bizi garean arte guztian
Gogoan dogu eukiko
Maitagarria dalako.
Berandu egin orduko
Agur danori amaitzen gohaz,
Beste batera juateko.

*Que le Dieu du ciel bénisse
Cette maison pour toujours
Le temps que nous vivrons
Nous l'aurons en pensée
Parce qu'elle mérite d'être aimée.
Dès il se fait tard
Salut à tous nous allons terminer
En allant ailleurs.*

Kepa Enbeitak Deun Agate baten kariatari irri pertsuak idatzi zituen, ohi-dura horren etsai bati, pertsuak galdu dira.

Kepa Enbeita écrivit à l'occasion d'une Sainte Agathe des vers satiriques, contre des adversaires de la coutume, ces vers se sont perdus.

Aitzitik, bere amonaren gandik Jon San Martin eibartarrak oraiko gaidun pertsuak bildu ditu. Hona «Anaitasuna» aldizkaritik: «Amamari jaso dot Santa Ageda Egunean taldeek Don Eugenio parroko jaunari kantatzen eutsoen bertso hau, egunari dagokion doinu bereziarekin:

Par contre de tels vers de circonstance ont été recueillis par Jon San Martin d'Eibar auprès de sa grand-mère. Extrait d'Anaitasuna; «Ja'i recueilli de ma grand-mère les vers que l'on chanta à Don Eugenio, le curé, avec l'air particulier qui convient au jour de la Sainte Agathe:

Kura parroko mondongo
hik eztok asko emongo;
hik emondako diruarekin
etxuako asko edango.

*Monsieur le curé de Mondon(?)
tu ne donneras pas grand chose
avec l'argent par toi donné
nous ne boirons pas beaucoup.*

VI. TOBERAK - EZTEI-ERESI

Les Toberas, épithalames rustiques

Toberak ez dira eske kantuak, baina ber modelum eginak, hots eresi-zahar deritzaien antzera. Eskearen aipamena kendu ezkeru pertsu berdinak badira eta usain zaharreko beste batzu.

Ezkonduerik gazte talde batek tobera-pertsuak ematen ditu; tartean toberak (burdin barrak), tobera jotzailek jotzen dituztelarik. Baliman lehenago txalapartak toberak, tupin-itsuak kobleen artean jotzen ziren. Ohitura hori Nafarroa-Garaikoa da.

Les «Tobéras» ne sont pas des chants de quête mais des compositions dans le même style, celui connu sous le nom de Eresi-zahar du Moyen-Age. Nous retrouvons les mêmes vers que dans les chants de quête et d'autres à la couleur ancienne.

Ces vers chantés par des jeunes aux époux étaient intercalés du martèlement rythmique de barres métalliques: les toberas. Peut-être qu'autrefois on intercalait à tous ces chants le martèlement des toberas métalliques, des txalapartas en bois et du grondement du «pot-aveugle». C'est une coutume de Haute Navarre.

Tobéras recueillis par Nikolas Ormaetxea (in Euskaldunak).

ORIXE-REN TOBERAK

1

Oles Ezkonberriak
Jaungoikoak gabon!
Toberaketan gatoz
bost edo sei lagun;
zuen baimenarekin
kantatu dezagun.

*Ole! Nouveaux époux
Dieu (vous donne) bonne nuit!
Nous venon jouer des tobéras
cinq ou six compagnons;
avec votre permission
chantons!*

2

Kopla dezagun lenik
emazte berria;
etxeak dion eran
eder du gerria
artazuriketan du
izena jarria.

*Faisons des couplets d'abord
(à) la nouvelle épouse;
comme l'indique la maison
elle(a) la taille belle
en dépouillant le maïs
(ainsi) nommée.*

D. PEILLEN

3

Lelo, eztaiak, lelo
Birjin Amarekin,
Toberak jo ditzagun
ordu onarekin;
ordu onarekin eta
Birjina Amarekin.

*Refrain, convives, refrain
par la Vierge Marie,
Jouons des tobéras
à l'heure convenable;
à l'heure convenable et
avec la Vierge Marie.*

4

Lore baratzen eder
arrosa gorria;
gari-meta gaiñean
eder da txoria;
bil dezake eraztunak
gaur zure gerria.
Lelo, eztaiak...

*Belle dans le jardin de fleurs
la rose rouge;
sur la meule de fougère
est beau l'oiseau;
(votre) anneau entourerait
aujourd'hui votre taille.
Refrain, convives...*

5

Lerden atal-ondoan
irastor-zugatza;
gaztain lerdanak goien
gaztaiña morkotza...
ez du nornaik arkitzen
olako bikotza.
Lelo, eztaiak...

*Svelte au seuil de la porte
le cognassier;
le svelte chataignier dresse
la bogue de chataignes
n'importe qui ne trouve pas
un tel coeur.
Refrain, convives...*

6

Etxe onek goien du
goien sapailloa;
aren alde banetan
gorago leioa;
bekokia, begia,
zuk orrelakoa.
Lelo, eztaiak...

*Cette maison à tout la haut
un haut grenier;
de chaque côté
plus haut la fenêtre;
le front, l'oeil,
vous l'avez pareil.
Refrain, convives...*

7

Sei gazta berri daude
erdiko leioan
zuriz eta berdiñez
ederki lerroan;
zuriago, berdiñago
zuk ortzak agoan.
Lelo, eztaiak...

*Il y'a six nouveaux fromages
sur la fenêtre du milieu
bien blancs bien réguliers
bien en rang;
plus blanc, plus régulier
vos dents dans la bouche.
Refrain, convives...*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

8

Beste leio batean
tomate gorria,
Gendulaingo Kokoak
atzo ekarria;
oi, ezpain kolorea
zuk ainbat gorria.
Lelo, eztaiak...

*A une autre fenêtre
la tomate rouge,
l'espagnol de Gendulain
l'a apportée hier;
ô, la couleur de vos lèvres
est aussi rouge.
Refrain, convives...*

9

Be-sarreran bi atal,
arri-uztai mako:
bat ardi sarrera ta
bestea beiendako;
egoki iduri zure
bi bekaiñendako.
Lelo, eztaiak...

*A l'entrée deux portails
arcs de pierre cintrée:
l'un pour l'entrée des brebis et
l'autre des vaches;
bien faits comme le sont
vos deux sourcils.
Refrain, convives...*

10

Etxe onek ba digu
andreak bezala
aurpegi zuri eta
bekoki zabala;
elkarrentzat egiñak,
dirudi dirala.
Lelo, eztaiak...

*Cette maison possède
comme sa Dame
une face blanche et
un front vaste;
faits l'un pour l'autre
ils semblent.
Refrain, convives...*

11

Oiturak ala baitu
ematen kirtena,
Gizona koplá zugun
Andreen urrena:
egun aitortu dira
bata bestearena.
Lelo, eztaiak...

*Puisque la coutume
nous donne le guidon,
chantons (l'éloge) de l'Homme
après celui de la Dame:
aujourd'hui ils se sont avoués
l'un à l'autre.
Refrain, convives...*

12

Aurten pagoak badu
ausarki ezkurra;
Nagusi berri onek
baitu buru zurra,
etxe ontan badaite
neguan egurra.
Lelo, eztaiak...

*Cette année la hêtre a
de la fêne à volonté;
Ce nouveau Maître de maison
parce qu'il a la tête sage,
il y'aura dans cette maison
l'hiver du bois.
Refrain, convives...*

D. PEILLEN

13

Olako etxe onak
onelako Jauna;
olako Emazteak
olako Gizona:
badirudi zeruak
eman ondasuna.
Lelo, eztaiak...

*Telle bonne maison
tel Monsieur;
telle Epouse
tel Homme:
il ressemble à la fortune
donnée par le ciel.
Refrain, convives...*

MANUEL LEKUONA JAUNAREN ARAUERA

(Version recueillie par M. Lecuona)

14

Abe Maria Purisima!
Jaungoikuka gabon!
deklaratzera nua
zer desio dugun:
toberak jotzera gatoz
bost edo sei lagun.

*Ave Maria purissima
Dieu (vous donne) bonne nuit!
je vais déclarer
ce que nous désirons:
nous sommes venus jouer des tobéras
cinq ou si compagnons.*

15

Toberak jotzera eta
libertitutzera,
ez uztiagatikan
usariyua galtzera;
borondaterik ezpada
juain gera atzera.

*Jouer des tobéras et
nous divertir,
pour ne pas laisser
l'usage se perdre;
s'il n' ya pas de bonne volonté
nous nous en retournerons.*

16

Nobiyo jaunak esan diyo
andre nobiyari
Zer egingo ote diyegu
gizon oriyeri?
Omore ona pasatzia
gustatzen zitt neri.

*L'Monsieur le fiancé a dit
à sa demoiselle fiancée
Que ferons nous donc
à ces hommes?
Passer (un moment) de bonne humeur
me plait à moi.*

17

Andre nobiyak errepuesta
jakiñak bezala:
Etorri diran kasuan
kanta dezatela:
lotsa aundiya emango
diyegu bestela.

*La demoiselle fiancée répond
comme étant informée:
Pour la raison qu'ils sont venus
qu'ils chantent:
nous leur donnerons une grande honte
autrement.*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

18

Libertsiyo polit bat
elkarren artian
pasatzia obe da
bitatik batian:
eztut uste izain den
iñoren kaltian.

*Un divertissement agréable
en compagnie
il vaut mieux se promener (ainsi)
une fois sur deux:
je ne crois pas que ce sera
pour nuire à quiconque.*

19

Konformatu dirade
biyak elkarrekin:
nere lagunak, zuek ere,
omore onakin;
palanka pikatzeko
kantatu «Samartin».

*Ils se sont accordés
les deux ensemble
mes compagnons, vous aussi,
de bonne humeur (vous êtes)
pour marteler le javelot
chantez «Samartin».*

20

Kantari andanak

Tous en choeur

*Samartin de la moja
moja de samartin!*
Toberak jo ditzagun
ordu onarekin;
ordu onarekin ta
Birjin Amarekin.

*Saint Martin de la religieuse
religieuse de Saint Martin!*
*Jouons des tobéras
à l'heure convenable
à l'heure convenable et
avec La Vierge Marie.*

Bigarren azalpen hau Manuel Lekuona-k Oiarzunen ikasi zuen eta Azkueren *Cancionero Vasco*-ren seigarren alean argiratua. Ez da Nikolas Ormaetxea-Orixe rena bezin garbia eta toberen gaineko artikulua luze batez lagundua dator.

Cette dernière version des Toberas apprise par Don Manuel Lekuona à Oyarzun (Guipuzcoa) et a paru en préface au sixième tome du *Cancionero Vasco* de Azkue. Cette version n'est pas une langue aussi pure que la précédente et elle se trouve dans un bel article écrit par M. Lekuona.

VII. MAIEN KANTUAK

Maiatzean Europa guzian gazteria guzia biltzen zuten jaien ondarrak dira Maien kantuak. Maiatz gazteen hilabetea zen, Maiatz zuhaitzak orduan landatzen ziren. Apollonen izenpean pagano haroan, Maiatz lehenean Jainko hori lore festa bat egiten zen (Frantzian oraino maiatz-lorea eskaintzen da).

Berry-ko dukearen «Livre d'Heures famatuan (Chantilly-ren ikusten da kopia bat) Maiatz hilabetearen pinturak gazteak berdez beztiturik erakusten dizkigu. Ez du aspaldi Biarnoan «Mayade» ak ospatzen zirela. Erribehaute-n apez euskaldun batek galerazi ditu, Marien hilabetean holako pagano festak eta dantzak emaiten zirela eskandalisatua (duela hogeitun urte).

Frantzian ere Maiatzean ziren eskean ibiltzen; Jacques Douai -ek paperetatik salbatu hori ezagutua da;

Horra nun den Maiatz pollita
zein den goxoa, zein den alagera
Horra nun den Mainatz pollita

Arren ogi aphur bat neska
gure kantuen ordez
eta gure basa-loreen gatik...

MAIEN KANTUA

(Txulufrina ta (y) arrosa)

Nafarroa-garaiko Arizkudar andere batek Pantxika Irigoyen-ek Azkue Jaun apezari kantatua. «Maiatzeko egun guzietan, aste egunez ere emaiten zen. Nes-

LES CHANTS DES MAIS

Ces chants sont l'écho des fêtes qui réunissaient la jeunesse dans toute l'Europe au mois de Mai. C'était le mois de la jeunesse le mois où l'on plantait, l'arbre de Mai. Placé sous l'invocation d'Apollon que l'on fêtait le 1er Mai par une fête des fleurs dont il reste la coutume du muguet.

Une des miniatures du Livre d'Heures du Duc de Berry montre les jeunes gens et filles habillés de couleur verte se promenant à cheval comme illustration du mois de Mai. Les Mayades ont encore existées au Béarn à une époque récente. A Rivehaute c'est l'arrivée d'un prêtre basque qui les a faites disparaître parce qu'il était scandalisé de voir des fêtes païennes se dérouler pendant le mois de Marie (il y'a vingt ans).

En France le mois de Mai était également l'occasion de quête; nous pouvons citer cette chanson que Jacques Douai a tirée de l'oubli:

*Voici venir le joli Mai
qu'il est plaisant, qu'il est gai
voici venir le joli Mai*

*Un peu de pain la fille
en remerciement de nos chants
et de nos fleurs des champs...*

LE CHANT DES «MAIS»

L'œillet et la rose

Chantée à Monsieur l'Abbé R. Azkue par une dame navarraise d'Arizkun du nom de Pantxika Irigoyen; se chantait tous les jours de mai même en semaine.

ESKE PERTSUEN BILDUMA

katxa bat jai-erregiña bezala hautatzen zuten eta ahal zuten bezain ongi apaintzen. Laguntzale guziak neskak ziren. Beren jai horri Erregiñetako kantuek, izena emaiten zioten.

Une jeune fille choisie comme Reine de la Fête était habillée aussi élégamment que possible. Toutes ses compagnes étaient des jeunes filles. A leur fête elles donnaient le nom de «chant du jour des Reines».

I. Taldeak neskatxa bidean topatzen bazuen:

I. Si elles rencontraient des jeunes filles:

1

Txulufrina ta (y) arrosa
Oi ori eder *abuja*
Naparroako Errege yaunak
egin omen du promesa (berritan)
Iru seme dituelarik,
irurek bana (y) arrosa (berritan)
etarik auta zuretzako da,
dontzella eder galanta!

*L'oeillet et la rose
ô quelle belle aiguille
Monseigneur le Roi de Navarre
a parait -il promis (bis)
quand il aura trois fils
(que) chacun des trois(aura) la rose (bis)
choisissez parmi eux
belle et gentille demoiselle!*

II. Erreginaren lagun-taldeak mutirik topatzen baldin bazuen, ber soinuarekin hitz horiek kantatzen zituzten:

II. Si la compagnie de la Reine rencontrait des jeunes gens, sur le même air, elle chantait ces paroles:

2

Ilarra zaiku loratu
orainik ezta lekatu;
ezkongaiia zarelarikan
nari zaitugu koplatu
saria bildu bear dugu (Berritan)
gu ere neskatxa gazteak gara
dotea bildu bear dugu (berritan).

*La bruyère nous est fleurie
elle n'a pas encore fructifié;
quand vous serez fiancée
nous voulons vous faire des couplets
nous devons ramasser notre salaire (bis)
nous aussi sommes des jeunes filles
nous devons nous faire une dote (bis).*

Pixkat urteetan sartutako emazte bati:

A une femme un peu entrée en âge:

3

Zaia duzu lurreraïño
sederia erdiraïño,
zu bezalakorik ez da sortu
Sevilla-tik onaraino.

*Votre robe jusqu'au sol
en soie jusqu'au milieu
il n'en est pas née de comparable
d'ici à Séville.*

D. PEILLEN

Bidean gurutzatzen zuten gizon bati: A un homme croisé en chemin:

4

Zure andreak erranik
zurekin dela mandatu,
aspaldiko denbora untan
eztela zurekin egondu.

*Dit par votre épouse
qu'elle s'est séparée de vous
(et) que depuis longtemps
elle ne s'est trouvée avec vous.*

Mandozain bati: A un muletier:

5

Agure ta erdi, ongi etorri
jauna berorren konpaini ori.
Espero gintuen eztaietara
erregina ta errege,
emezortzi kalonje,
emeretzi priore:
eken guzien mantenitzeko
egin beza fabore.

*Vieillard et à moitié, bienvenu
monsieur (nous sommes) votre compagnie
Nous attendions pour les noces
la Reine et Le Roi,
di-huit chanoines
dix neuf prieurs:
pour les nourrir tous
faites nous grâce.*

Apez bat topatzen baldin bazuten: Si elles rencontraient un prêtre:

6

Oina ttipi zapatapeko
aztala xuri galtzetapeko
eskuak ere konsagratuak
gure Jaunaren altxatzeko.
Ezkilak errepikatzen
yendea zer den galdetzen:
emen eldu den apez yaun au
aingeruekin mintzatzen.

*Pied petit sous la chaussure
le talon blanc sous la chaussette
les mains de même consacrées
pour élever notre Seigneur.
Les cloches sonnent
le monde demande ce qu'il (en) est:
monsieur l'abbé qui vient ici
parle aux anges.*

VII. Zerbait eman zuketeneri: VII. A ceux qui auraient donné
quelque chose:

7

Eman duzu nobleki
mundu guziak badaki,
zuk eman duzun diru unekin
eginen tortxa bi.
Tortxak bear du aria,
ariak argizaria:
amalau mila aingeruekin
paradisuan sar zaitezilla.

*Vous avez donné noblement
tout le monde le sait,
avec cet argent que vous nous avez donné
nous ferons deux cierges.
Le cierge nécessite du fil
le fil de la cire:
avec quatorze mille anges
entrez au paradis.*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

VIII. Dudatzen zuten jenderi:

8

Ematekotan emazu,
bertzela ezetz errazu,
gu unela idukitzeaz
probetxurikan ez duzu.

VIII. Aux personnes qui hésitaient:

*Tant qu'à donner donnez,
sinon dites non,
de nous garder ainsi
vous n'avez pas profit.*

IX. Ematen ez zuten zikoitzeri:

9

Utzan utzan isillik
orrek ez tin dirurik;
badieraman bolsa zagar bat
arri kiskorrez beterik;
unetakoan ekarriko din
zorri zuriz beterik.
Akio eta makio
lepezurra auts balekio;
ni barber mediku egin-artio,
sendatu ezpalekio.

IX. Aux avarés qui ne donnaient pas:

*laisse, laisse le au silence
celui là n'a pas d'argent,
il transporte una vieille bourse
pleine de gravier;
en revenant il l'apportera
pleine de poux blancs.
prend et prend
que l'os du cou lui puisse briser;
le temps que je devienne chirurgien
qu'il ne puisse guérir.*

DONIBANEKO KANTUAK

Hemen sartu ditut nahiz ez diren eske-kantuak, pagan-usaina gatik eta beste eske-pertsuak argitzekotan. Gorago Maien kantua aipatu dut eta nion Biarnoko Mayade jaiak zer ziren eta Frantziako «les fêtes de Mai» eta hain zuzen Donibaneko bi kantuetan aipatzen dira «Paskua Maiatzekoak». Azkue arritu zen eta ez zuen arkitu hitz horien adierazpena, Pascuas erdaraz esaten baita jai askorentzat, hemen guk Maiatz jai bezela ulertu behar genituke eta frantsesez «fêtes de Mai» Bestalde sinespen eta ohiturei buruz, kantu horiek argitzen gaituzte. Gutti gora behera udako *equinoxius* hori senargai eta emaztegai hautatzeko eguna izan behar zuen, neguaren aipamenak senar zarraren heriotza gogora ekartzen baitu.

Zuberoko katurik ez dakart, baina gure herri hortan gertatzen direnak Donibanetan kantuetan irakurri ditut, hala nola usain oneko belarren biltzea egun hartan, (edozein bedarrek usain ona dauko); gauean dantza egiten zela eta goizean nekearen nekez lokartzen (egizu lo andi asko doniane goizeko).

Halere kantu horietan ez dira beste ohiturak aipatzen, adibidez Zuberoan pasatu dudan Donibane bakarrean (Jon Done Joane diogu), goizean lengusuek jeikierazi ninduten eta errekarra joan ginen begitartatzera (arpegia garbitzera) urte guzian osasuna izateko. Gero elorri eta belar sortak egin genituen atalburuan, eta aterbe ateetan ipintzeko, tximistaren zaindari bezala. Aitak, gure aita zenak, kondatu zidan gau hartan, gauerditan, zaharrek ziotela une laburrean harriak urre bilakatzen zirela eta Uhaitzeko (herriko ibaieko) hurak ardo bihurtzen.

Zuberoan aspaldian ez da Donibaneko surik egiten, jendea ere ez da oroitzen, egiten zenik, baina beste ohiturak orain arte osorik etorri dira joan den urtean kondatu zidatenez. Dakidanez, ez zen eskerik egiten Donibanez, Maiatzeko jaietan Naparroan iduri luke baietz, eta Biarnon behintzat bai segurru, Arnaud Salette Tamboury Erribahautekoak kondatu legean. (Biar-noko herri horrek Euskal Herria hukitzen du).

DONIBANEKOAK

1

San Juan bagillean
denpora ederrean,
amalau atso tronpeta yoten
motraillu baten ganean.
.....

Udan udan udan
Sai Juanetan
ddantzan ingo dogu
ifar airetan.

2

Lirio lora ederra
jaio da bagillean
lora ederrez beterik dago
Paskua-maiatzean
.....

Udan udan udan etc.

3

Maiatzean lirio ederra
baia orain bagillean
irukotxa ederrago da

1

*A la Saint Jean de Juin
par beau temps
quatorze vieilles jouaient de la trompette
sur un mortier.*
.....

*En été en Eté, en Eté
à la Saint Jean
nous danserons
aux souffles de la bise.*

2

*Le lis(est)une belle fleur
elle est née en Juin
il est couvert de belles fleurs
pour la Paque de mai (sic)*
.....

En Eté en Eté en Eté etc...

3

*En Mai le lis (est) beau
mais maintenant(c'est) juin
le trèfle est plus beau*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

Paskua maiatzean (bagilean?)

.....

Udan udan udan etc.

4

Gure ortuan ginda-lorea
Sai Juanetako eldua,
Sai Juanak baiño lenago
gure usoak batua.

.....

Udan udan udan etc.

(Sai Juan, Otxandio)

Murelagako San Juanak (beste ahaire
batean)

5

San Juan bagilean
denpora ederrean
edozein bedarrek usaina dauko
doniane goizean

.....

Da San Juan da San Juan
beti oi zaukadaz gogoan.

6

Iada Doniane edo
jentea triste dago,
San Juan bera bere loak
artuta dago.

.....

Da San Juan da San Juan etc...

7

Atzo San Juan, San Juan zan
da gaur da San Juan Bautista
Jesu Kristoren lengusua,
San Juan ebanjelista.

.....

Da San Juan, da San Juan etc...

Lekutioko Sai Juanak

pour la fête de juin

.....

En Eté en Eté en Eté

4

*Dans notre jardin la fleur de la puigne
(est) mure pour la Saint Jean,
mais avant cette fête
nos colombes (les ont) récoltées*

.....

En Eté en Eté en Eté

(Saint Jean, Ochandiano) (Biscaye)

St Jean de Murelaga (Biscaye)

5

*A la Saint Jean de juin
par le beau temps
toute herbe est aromatique
le matin de la Saint Jean*

.....

*Et Saint Jean et Saint Jean
je vous ai toujours en mémoire.*

6

*Est ce déjà la Saint Jean ou
bien le monde reste triste,
Saint Jean lui même est
pris de sommeil.*

.....

Et Saint Jean et Saint Jean etc...

7

*Hier Saint Jean c'était la St Jean
et aujourd'hui St Jean Baptiste
le cousin de Jésus Christ,
Saint Jean l'Evangeliste.*

.....

Et Saint Jean et Saint Jean etc...

St Jean de Legutiano (Biscaye)

D. PEILLEN

8

Goazen Sai jaunera
Sai juan kantatzera
neu ezin joan nindaike
ain bere urriner

8

*Allons à la Saint Jean
chanter la Saint Jean
je ne puis y aller moi-même
c'est bien trop loin.*

9

Katea luze dauko
ak ene biotzera
noz etorriko ete da
kate au libratzera?

*La chaîne est longue qui me tiend
au coeur à cette fête
quand viendra donc (le temps)
de me libérer de cette chaîne?*

10

Donianek urteoro
bere egunez goizean
seiñale ederra dakarsku:
izarra bularrean.

*La Saint Jean tous les ans
le matin de la fête
nous apporte un beau symbole
une étoile sur la poitrine.*

11

Izarra dogu Batista
eguzkia Jesu Kristo...

*L'étoile est Baptiste
le soleil Jésus Christ...*

Gatzagako Sai Juanak

La Saint Jean de Gatzaga (Guipuzcoa)

12

Sai Juan, Sai Juan dala
(Errepika)
engañadurik nago
ez edo bada Sai Juan jentea
triste dago.

*St Jean puisque c'est la St Jean
j'ai du me tromper
y'a t-il ou pas de St Jean, le monde
reste triste.*

13

Oreganu Sai juan goizean
yoan nintzan ortura zarbatan,
zarbearen ondoan batana
eta orixeda neuronen laztana.

*Origan, du matin de la St Jean
j'allais pour des ronces au jardin,
près de la ronce la menthe
et c'est là ma préférée*

14

Sai Juan eta ile bi negura
agura zarra daukan andrea galdu da

*St Jean et deux(sic)mois jusqu'a l'hiver
[est perdue.]*

ESKE PERTSUEN BILDUMA

neuronek gaztea daukat eta
eztost ardura.

*femme qui a un vieillard pour mari
le mien est jeune et
celà ne me soucie pas.*

Zumaiako San Juan (Igaz ere S. Juan)

La St Jean de Zumaya (Guipuzcoa)

15

Agura zarra eman balide senartzat
artu ta yeurtikiko nuen pardeltzat
gorde zezala nai zuenak beretzat.

15

*Si l'on m'avait donné un vieux mari
je l'aurait pris et jeté comme un paquet
que celle qui en aurait voulu le garda.*

16

Donianez ezer ez ta
yendea triste dago
egizu lo andi asko
doniane goizeko.

16

*A la St Jean rien et
le monde reste triste
faites un bon somme
le matin de la St Jean.*

VIII. ERREGEAK, ERREGINAZ

Erregetarako emaitzak egiteko erdal
ohiturarekin ikustekoa dute.

Chants reliés à la coutume espagnole
de faire des cadeaux pour les Rois.

1

Erregeak datoz presaz Belen-a
Guk bila dezagun al dan lenena.
.....

Ate txokoan oillar bi
batak bestea dirudi;
etxe ontako etxeakoandreak
Ama Birjina dirudi.

(Ernani, Azkue)

1

*Les Rois viennent en hâte à Bethléem
Allons au plus tôt à leur recherche.*

*Au coin de la porte deux cops
l'un ressemble à l'autre;
la maîtresse de cette maison
ressemble à la Sainte Vierge.*

(Guipuzcoa)

2

Erregeak datoz, Erregeak datoz
Bretxan barrena, bretxan barrena,
ikatz erostera, ikatz erostera,
txanpon batena, txanpon batena. Agui-
[naldo.

(Donostia, Azkue)

2

*Les rois viennent les rois viennent
Par la brèche de la muraille (de St Sébas-
[tien)
pour acheter du charbon(bis)
pour quelques sous(bis) Au gui l'an neuf.*

(Guipuzcoa)

D. PEILLEN

3

Erregina ta Errege,
egun Santa Kurutze,
ek guztiak onak dire
zazpi zilar gurutze.

(Sunbilla, Azkue)

3

*Reine et Roi
aujourd'hui Sainte Croix
toutes ces(choses)(?) sont bonnes
sept croix d'argent.*

(Haute Navarre)

4

Eman digute nobleki,
konpañak ere badaki,
zuk emaniko sari orrekin
Egun bear ttugu tortxa bi.

(Sunbilla, Azkue)

4

*Ils nous ont donné noblement
la compagnie le sait aussi,
avec votre récompense
nous ferons deux cierges.*

(Haute Navarre)

5

Tortxak bear du aria,
ariak argizaria,
amalau mila aingeruekin
Paradisuan sar zaithea.

(Sunbilla)

5

*Le cierge a besoin de fil
le fil de cire,
avec quatorze mille anges
entrez au Paradis.*

(Haute Navarre)

6

Zapata txuriak paperez,
euria danean batere ez;
nagusi jauna esan zaiguzu
asiko geran edo ez.
Erregeak datoz presaz Belena,
guk billa ditzagun aal dan lenena.

(Ernani)

6

*Les souliers blancs en papier,
quand il pleut rien du tout;
Monsieur le maître dites nous
si nous pouvons commencer ou non.
Les Rois viennent en hâte à Bethléem
Recherchons les au plus tôt.*

(Guipuzcoa)

7

Atari ondora eldu gera,
sartu gaitezen barrena;
etxe onetan esperantza det
agirandorik onena.
Erregeak datoz presaz Belena
guk billa ditzagun aal dan lenena.

(Ernani)

*Nous sommes arrivés près de la porte
entrons à l'intérieur;
je compte dans cette maison
(avoir) le meilleur étrene.
Les Rois viennent en hâte à Bethléem
Recherchons les au plus tôt.*

(Guipuzcoa)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

ESKE PERTSUEN BATASUNA

Koplak berdintzeko elkarren ondoan jarriko ditugu, Zuberoakoak oinharri bezala hartuz

Zuberoa (Albadak)

Eman duzie oneski,
kunpañak ere badaki
paradusian sar zitaie
hamabi ainguriekín.

(Larraine herrian)

Naparroa (Urte berriko kantua)

*Eman duzu nobleki,
konpañak ere badaki:
zure gaurko eman honekin
eginen dugu tortxari.*

(Lekaroze herrian)

Zuberoako

Meza y ari da emaiten
zeñña errepikatzen:
etxe hortako txipitto hori
ainguriekín mintzatzen.

(Larraine)

Naparroa

*Ezkiak errepikatzen
yendea zer den galdetzen:
Lekarozko Erretor jauna
aingeruak mintzatzen.*

(Lekaroz)

Zuberoa

Etxeko jauna zuk entzun
bardin plazer baduzu:
etxekuen koblatzeko
deligentzia emaguzu.

(Larraine)

Bizkaia

*On dau saltseak espezia
Bartzelonatik ekarria:
nagosi jauna gura genduke
kopla onetako lizentzia.*

(Garai)

Zuberoa

Hur ondoetan lexarra
zelu goretan izarra:
etxe hortako «gizon» horrek
urrhez dizu bizarra.

(Larraine)

*Ateok dira leizarrez
ate buruok zidarrez:
etxe onetako etxeko jauna
urre gorritzko bizarrez.*

(Garai)

Emaitekotz emazu,
heben haiduru gututzu
muthil gaztiak gira
eta dothe bilha gututzu.

(Larraine)

*Emongo boizu emozu
bestela ezetz esaizu:
ate ondoan aizeak artzen
amak ez gaitu bialdu.*

(Garai)

Zuberoa

Hur ondoetan lexarra
zelu goretan izarra
etxe hortako «gizon» horrek
urrhez dizu bizarra.

(Larraine)

Gipuzkoa

*Errekaldean lizarra
or goein goein izarra
etxe ontako nagusi jaunak
urre gorritzko bizarra.*

(Gaintza)

D. PEILLEN

Baratzian uthurri zilhar hura uduri etxe hortako X hori hartan sartia uduri.	(Larraine)	<i>Or goien goien iturri ura pilpil etorri: etxe ontako etxeoandreak Ama Birjiña dirudi.</i>	(Gaintza)
Etxekandere zabala leku honeko alhaba: bide huntan jakin dizugu amoina egile zinela.	(Larraine)	<i>Etxekandere zabala toki oneko alaba: bidean inpormatu gaituzte limosnaria zarela.</i>	(Egan, Gipuzkoa)
Oihanean elorri pika eta erori: etxe hortako etxeko jauna	(Larraine)	<i>An goien goien elorri ondoan jota erori: etxe ontako etxekandreak</i>	(Gipuzkoa Haute Navarre. Or.)
Pinpirineta, pinpirineta etxe hortako primistetan zazpi zezen tolera niro (Prima edo primia) zure ezteietan.	(Larraine)	<i>Or goian dago urrutietan goien goiengo leioetan: zazpi zezenek yoka dezala Anjelesen ezteietan.</i>	(Alsasua, Naparroa)
Baratzian belar hun Gaurko gaia guretzat hun	(Larraine)	<i>Baratzean belar on gauak eman'tu lau oron.</i>	(Garaio, Naparroa)
		<i>Gure baratzean berar ona ark botatzen du usain ona.</i>	(Urdiain, Naparroa)
<p>Honeraino Ziberoko koplekin egin ditugun berdinketak, hurrungo Bizkaiarekin eta mugaz sartaldeko herriekin izan dira. Orain Lapurdirekin eta Nafarroa Beherarekin.</p>			
Ezkira huna beharrez ez eta ere aiherez: usia gatik legia gatik erreprotxien beldurrez.	(Larraine)	<i>Ez gabiltza ederrez ez eta ere beharrez: kostuma zaharren uztez erreprotxa beldurrez.</i>	(Lapurdi)
Parise(y) eta Baiuna Orai girade gu huna: etxeko jauna hunpañareki(n) jinkuak deizula gai-huna.	(Larraine)	<i>Tolos-eta Baiona Jainkoak dautzul'egun ona: guri txingarren emaitera, jeiki bazinte huna.</i>	(Lapurdi)

ESKE PERTSUEN BILDUMA

Eztugu nahi altharia
ez eta ere erdia:
usia gatik, legia gatik
liberatako txinkorra.

(Larraine)

*Ez dugu nahi urdea
ez eta ere erdia;
usaia gatik, kostuma gatik
liberatako zatia.*

(Behorlegi, Napb)

.....
*kostuma gatik legea gatik
libraerdiko zatia
eta gerrenaren betea.*

(Ezkaroze, Napg)

Etxean eder gerrena:
etxekandere lerdena;
zure erhiko erhaztunaz
eros leiteke Baiuna.

(Larraine)

*Etxean eder gerrena
etxekandere lerdena,
zure erbiko erhaztun hortaz
eros niro Baiona.*

(Napg, Kantuz)

Pinpirineta Pinpirineta
etxe hortako primistetan
zazpi zezen tolera niro
(prima, primia) zure ezteietan.

(Larraine)

*Txoria dago pinpirinetan
etxe huntako leihoetan
zazpi zezen hilen tuzte
primu horren ezteietan.
(zazpigarrena toleaturen
konpañiaren oboretan).*

(Behorlegi)

Eman duzu oneski
kunpanak ere badaki
paradusian sar zitaie
hamabi ainguriekín.

(Larraine)

*Eman duzu nobleki
konpaniak ere badaki
parabisuan sar zaitzezela
hamabi aingeruekin.*

(Lapurdi)

Bedinketa joku hori jarraiki genezake, baina erakusten digu, nola egitura berdineko koplak arkitzen diren Santa Agedako (gehienetan), Santibatekoetan, Kanderailukoetan (Zub.) eta Ihautirikoetan, bai eta Urte Berrikoetan.

Ez luzatzea gatik bazter utziko ditut egitura desberdineko diren Santa Agedako kantu berriak, Maien kantua, Errege-Erreginenak, eta Donianekoak. Orain «eresi zahar» gisako koplak horieri kasu egiten badugu badira bi motatakoak.

1 ik: jenderi gaizki edo hongiri erraitan, koplak zaharraren erdua erabiltzen da bi bertsu Izadian hartu iduri goxo eta eder bat; askotan iduri hori sartzen da eder hitzaren bidez: etxean eder... landan eder... gehie-

D. PEILLEN

netan, eta ejer Zuberoan. gero beste bi bertsuak jendeari zuzenduak dire, etxe huntako... eta etxe hortako... hitzekin hasten da maiz hirugarren bertsuak.

2 ik: Ber kantuetan eskea egiten deneko bertsuak ez dira egitura berdinekoak lau bertsuetan ber gaia, janaria, erabiltzen dute; halere koplak neurri eta piko berdinak ditu; adibidez: Gipuzkoan eta Bizkaian iduri luke dirua ere eskatzen dutela bertsuetan.

poltsea badegu
baiña eskean gatoz.

Bestalde, bertsu meta zahar batean berriak sartzen direnean ez dute beti eredu zaharra jarraitzen eta Izadiko iduria utzita, lausengatu nahi denaren aurpegia edo jantzia goraipatzen da.

Ezpata eder gerrian
Bonet gorria burian:
etxe hortako mothil hori
aurthen bere ezkont'urthian.

Oxala, lan honekin zirrikatu dut normait, korputz, edo bertsu-bilduma honez baliatzera gure Erdi Haroko olerkigintzaz argi apur bat ateratzeko.

D. PEILLEN